

# BALMASEDAKO JUDUENTZAT **GAITZ ERDI**



**Nagore Irazustabarrena**  
**Uranga**

@irazustabarrena

Balmaseda, 1483. Herriko kontzejuak, ordenantza baten bidez, bertan auzotzea eta balmasedarrekin ezkontzea debekatu zien juduei. Juduak mende bat lehenago iritsi ziren herrira eta Kale Zaharreko hamahiru etxetan bizi ziren. Balmasedak 1.000 biztanle inguru zituen orduan eta juduak 50 bat ziren. Ez dirudi kopuru handia, baina XV. mendean erdialdean Balmasedakoa euskal lurraldeko bigarren judutegi garrantzitsuenaren ondoren.

Handik hiru urtera, 1486ko urtarrilean, juduek debekuei muzin egin izana aitzakia, kontzejuak haiek herritik botatzea erabaki zuen eta, hainbat gizon armatuk, Pedro Sanchez Terreros alkatea buru, indarrez betearazi zuten erabakia. Juduek ihes egin zuten eta gehienek Villasana de Mena (Burgos) herrian hartu zuten babesa. Urte berean Gernikako Batzarrean gaia eztabaidatu zuten, eta Haron juduen ordezkariak juduak Balmasedatik "betirako urruntzea" onartu zuen, ziurrenik une horretan beste aukerarik ez zuelako.

Baina juduek Errege-erregina Katolikoengana ere jo zuten konponbide eske, eta haien erantzuna 1488an jaso zuten. Gutun bat bidali zioten herriko kontzejuari, juduak atzera bertan onar zitzan eskatuz. Errege-azutegiak, gainera, bitartekari bat izendatu zuen eskaera betetzeko: Lope García de Chinchilla lizentziatua.




*'Juduak Espainiatik egozteá, Emilio Sala, 1889. Errege-erregina Katolikoek 1492an eman zuten juduak egozteko agindua, Granadako ediktua sinatuta. Ordurako Balmasedan ez zen judurik.*

Balmasedarrek ez zieten itzultzeko baimenik eman, baina, gutxienez, negoziatzeko prest agertu ziren. Eta, azkenean, itxuraz Chinchillaren ahaleginei esker, juduek Balmasedan zituzten ondasunak tasatzea eta ezarritako balio horiek ordura arteko jabeei dirutan ordaintzea adostu zuten. Horrenbestez, juduak Balmasedatik egotzi zituzten, baina behintzat ez zituzten esku hutsik bota, Errege-erregina Katolikoek bitartekaritza esker.

Kontua da handik lau urtera agintari berberak, Elisabet I.a Gaztelakoak eta

Fernando II.a Aragoiakoak, erresumako judu guztiak egozteá erabaki zutela. 1492ko martxoaren 31n Granadako ediktua sinatu zuten eta maiatzaren lehenean jarri zen indarrean. Eta ez zen negoziatorik izan: juduek inolako ondasunik eta eskubiderik gabe alde egin behar izan zuten. ■



NEW YORKEKO HISTORIA NATURALEKO MUSEOA

## Neandertalen esku traketsak

Neandertalگو gizakiek utzitako aztarnategietan arte adierazpide eta harrizko tresna landu gutxi aurkitu dira, denbora luzez haien garaikide izan ziren Cromagnongo gizakiek utzitakoekin alderatuta. Orain arte, hominido haien ustezko urritasun kognitibo eta sinbolikoarekin lotu izan da hori. Baina Madrilgo Complutense Unibertsitateko ikerlan batek

arrazoi mekanikoagoa eman du. Eskulan zehatz eta finak egiteko hatzek zortzi posizio hartu behar dituzte, eta horietatik seik estres mekaniko handia eragiten zieten neandertalei. Neandertalen eta egungo gizakion eskuak oso-oso antzekoak dira, baina falange laburxeagoak zituzten haiek, eta ñabardura hori funtsezkoa izan zen batzuen eta besteen etorkizunean. ■